

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Arrantzako araudi berriak amuarrainarentzako babes handiagoa eta espezie inbaditzaileen aurkako neurriak eskaintzen ditu

2015eko amuarrainaren zenbaketaren arabera, 1992. urteaz geroztiko espeziearen populazio-maila txikiena dago orain

Martes, 01 de marzo de 2016

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ingurumen Batzordeari heriotza bidezko amuarrain-arrantza gehiago mugatzeko proposatu dio 2016ko denboraldirako, udaberrian hasiko dena (maiatzaren 1etik ekainaren 30 era), 2015eko amuarrainaren populazioa 1992. urteaz geroztik dagoen txikiena dela jakin ondoren (1.183 ale hektareako); urte horretan hasi ziren egiten Nafarroako ibaietan amuarrainen zenbaketa sistematikoa (2014an baino % 16 gutxiago, eta batez besteko historikoa baino % 60 gutxiago).

Zehazki, Ingurumenaren proposamena da, Arrantzaren Aholku Batzordearekin adostuta dagoeneko, sasoi honetan arrantzale bakoitzak izango dituen baimenak bi jardunalditara mugatzea, eta arrantzatu dezakeen amuarrain-kupoa bira mugatzea jardunaldi bakoitzeko (aurreko sasoiari, 5 baimen eta 3 amuarrainen kupoa zegoen).

Aldiz, Nafarroako Gobernuak heriotzarik gabeko arrantza-modalitatea sustatu nahi du (arrantzatu eta askatu) amuarrainaren zale nafarren artean, haur eta gazteen artean, bereziki.

"Arrantzarako bi kirol toki" berri sortu dira Araxes eta Urumea ibaietan, aldi berean "arrantzatu eta askatzeko gune" direnak. 16 urtez azpiko adingabeek hirigunetan arrantzatu ahalko dute arrantzatu eta askatzeko modalitatean irekita geratutako arroetan.

Gogora ekarri behar da, aurreko sasoiaren estatistikaren arabera, Nafarroako arrantzaleen % 60k erazteko arrantza egiten duela, harrapatu eta askatzearen bidez, eta Nafarroako Gobernuak balantze hori aldatu nahi duela proposatutako neurriak sustatuz; hala, presioa murriztu nahi da, eta espezie basati horren biziraupen genetikoa bermatu.

Arrain-denboraldi berrirako beste proposamen batzuk

Nafarroako Gobernuak egindako proposamenak amuarrain-baimenen proportzioari eusten dio, erazpen-modalitatea, eta honako era honetan banatuko dira Nafarroako arroetan: Baztan-Bdasoa, 5.376 baimen; Oria-Urumea, 4.667; Urederra, 127 (Zudaireko barruti naturala, 71); eta Arga-Ultzama, 684 (Eugiko barruti naturala, 284).

Ega, Arakil-Larraun, Ultzama, Irati-Erro eta Eska-Salazar ibai-arroetako debekualdiari eusten zaio, ur horietako amuarrain-populazioaren dentsitate txikiagatik, eta Laitzaran nahiz Añarbe ibaiek Gipuzkoarekin muga egiten duten zatietan ere debekualdia jartzen da (Añarbeko urtegitik

ibaian gora).

Aipatuenez, Araxes eta Urumea ibaietan heriotzarik gabeko arrantzarako mugatutako bi gune sortu dira, eta Ezkurra ibaiko zati bati eusten zaio arrantzaren prestakuntza-eskolarako gune modura (Donezteben, Ezkurra eta Ezpelura ibaietako zubien arteko 700 metro dira). Eta 16 urtez azpikoek, gune horietan doan arrantzatu ahalko dute, gazteen artean modalitate hori sustatze aldera.

Izokinari dagokionez, aurten Bidasoan arrantzatu ahalko diren 81 aletako gehieneko kupoaz ezartzen da (83, 2015ean). Multinvierno izokinak babesteko neurriak eusten zaie, 2015ean adostu eta onartutakoak. Sasoiari maitzaren 1ean hasi eta uztailearen 31n amaituko da edo lehenago, arrantza egiteko baimendutako kopurua osatzen bada.

Espezia exotiko inbaditzaileei dagokienez, Nafarroako ibaietako ekosistemarako arrisku handia sortzen dutenak, debekualdi-proposamenak haiek sakrifikatuz behartzen du arrantza egiteko orduan, bere zabalkundea saihesteko neurri gisa. Arau horrek lutxo, perka amerikar, arrain katu edo siluruari eragiten die, beste arrain batzuen artean.

Zebra-muskuiluak Foru Komunitateko masak ez infektatzeko eta haren zabalkundea saihestearren, arrantzarako tresneria ongi garbitu eta lehortu beharko da, eta konfederazio hidrografikoen ezarritako arau guztiak errespetatuko.

Amuarrainen populazioaren bilakaera eta zenbaketa-sistema

2015eko zenbaketa eta azterketen emaitzek amuarrainen populazioa 1.183 aletan jartzen dute hektareako, hau da, aurreko urtean baino % 16 gutxiago. Balio hori 1992. urtetik izandako serie historikoaren batez bestekoaren azpitik dago. Hala jasotzen da Nafarroako Gobernuak egindako amuarrainen populazioari buruz egindako urteko txostenean.

Laurogeiko hamarkadaren hasieratik, urtero, eta arrantza-sasoiaren ondoren, Nafarroako ibaien amuarrainen populazioaren egoeraren jarraipena egiten da. Jarraipen horretan, amuarrain basatiaren populazioaren tamaina eta egitura aztertzen dira, gure ibaietan daudenena. Hala, ibaian zenbat amuarrain geratzen diren jakiten da, eta populazioa osatzen dutenen adin-taldeak: alebinak, gazteak eta heldu ugaltzaileak.

2015arekin gutxieneko historikoen hirugarren urtea jarraian betetzen da. Alebinen populazioaren maila txikia da gehien kezkatzen duena, handik bi urtetara amuarrain helduen kopurua adierazten dutenak baitira.

Azterketa horiek, datu zehatzak lortzeaz gain, Nafarroako izokinaren ibai-zatietako karga-gaitasuna zein den kalkulatu ahal izaten dute. Hau da, amuarrain gehiago edo gutxiago hartzeko zer-nolako ahala duen. Gaitasun hori faktore askoren mende dago: uraren kalitatea, emaria eta tenperatura, eta, oro har, hondoen osaera eta erriberaren egoera ona nahiz luzetarako konektibitatea (presek eta presa txikiak ibilguan eragotzitakoak).

Kontserbazioarekiko konpromisoa

Foru-agindu honek eragindako alderdiak arrantza-batzordearen esparruan kontsultatu eta eztabaidatu dira (adituak, eta jarduera ludiko hori egiten duten pertsonak hartzen dituzten elkarteak).

Alde horretatik, Ingurumen eta Uraren zuzendari nagusi Eva Garcia Balaguerrek aipatu duenez, "ezinbestekoa da elkarte horien laguntza jasotzea arrantza-tresnen nahiz askotariko modalitateen jokabide arduratsu bat lortzeko, egungo populazioei ahalik eta kalte txikiena eragiteko. Departamentuak informazio eta prestakuntzako azterketak eta jardunaldiak babestuko ditu arrain-aberastasunaren kontserbazioarekin konpromiso handiagoa lortze aldera".

Amuarrainen egoera konplikatu ez da Nafarroako ibaien kontu bat bakarrik, eta klima-baldintzei eta ibai-ibilguri eragiten dien egoera orokorrari erantzuten die. "Zalantzarik gabe, arrantzaleak dira egoera honen kaltetu nagusietako bat dira, azpiarrok (ibaien arabera) nahiz maila orokorrean jorratu behar dena, honako hau bermatzeko: bizitza duten ibaien ibilgua eta haiek eskaintzen dizkiguten funtzio sozial nahiz

ekologikoak berreskuratu, babestea eta herritarrek gozatu ahal izatea", gaineratu du zuzendari nagusiak.

Iragarri duenez, Departamentuak arroen araberako gogoeta bat egingo du, "eta hari esker, haietako bakoitzerako jarduera-ildo bat finkatu ahalko da, bai eta 2017. urteko arrantza-debekualdirako baldintzak ere. Kolektibo horien inplikazioa funtsezkoa da ibai-ibilguak lehengoratzeko jartzen ditugun helburuak eskuratzeko; gainera, klima-aldaketa arintzeko eta egokitzeko egin beharreko lanaren testuinguru zabalean kokatu behar da".